

Munduko Rugby Txapelketa



Inglaterrak aise menderatu zuen Estatu Batuak atzo Twickenhamen

Britainiarrek hamabosteko onena zelairatu zuten garaipena ziurtatzeko

Twickenhamen 37-9 irabazi zion Inglaterrak Estatu Batuetako selekzioari, eta final laurdenetarako txartela ia ziurtatuta du, ezinezkoa ikusten bait da Italiak New Zealandi irabazi eta arriskua eragitea. Atzo partidua hori baino ez zen jokatu Munduko Txapelketan, eta emaitzak iragarpen guztiak bete ditu.

DONOSTIA

Munduko Txapelketako aurreneko fasea amaitzear dagoela, ia guztia erabakita, atzo Inglatera eta Estatu Batuetako selekzioen artekoa izan zen norgehiagoka bakarra. Iragarritako zegoen moduan, aise nagusitu ziren britainiarrek Twickenhamen: 37-9. Honenbestez, miraria baino zerbaite gehiago ere beharko du Italiak. A multzoan final laurdenetarako txartela eskuratu nahi badu. New Zealandi irabazi behar bait dio horretarako. New Zealand eta Inglatera final laurdenetara sailkatu direla esan liteke, iragarpen guztiak betetz.

Roger Uttleik hamabosteko onena zelairatu zuen Estatu Batuen kontra, amerikarrak arriskutsuak izan ez arren aurrera egin hala ez bait zuten jokoan britainiarrek. Bigarren letroko Dooly kanpoan utzi zuen hala ere, azkeneko partiduan min hartu zuelako. Ackfordekin batera munduko bigarren lerro onena osatzen dutela ere esan liteke, eta aurrerago erakutsi beharko dituzte dohai guztiak.

OHIZKO JOKO INDARTSUA Aurreneko ihardunaldian ez bezala, ondorenean Ingleterako hamabostekoak ohizko joko



Underwood azkarrak eragozpen handirik ez zuen izan eskuzko jokoan.

indartsua erakutsi du, eta New Zealanden kontrako porrota estali egin du Italia eta Estatu Batuetako selekzioen aurka lortutako garaipen errazekin; aurkariak ez dira hala ere arriskutsuegiak izan, eta Roger Uttleiren gizonak aurrerantzean erakutsi beharko dute Bost Nazioetako txapelkunak behar duen maila.

Estatubatuarren defentsa ahula erraz antzera gaintu zuten inglesak, eskura arazorik gabe jokatu eta entseiu lerrora aise hurbilduz. Touche-etan baloi guztiak irabazi eta joko bilduan ere erraz nagusituz, joko alaiak egin zuten britainiarrek

Twickenhameko zaletu sutsuen aurrean. Final laurdenetan Inglaterrak Frantziaren kontra jokatu beharko du, iragarpenak bete eta beren multzoko bigarrena eta lehena sailkatzen badira. Eta lanak izango ditu Uttleiren hamabostekoak, partidua Parisen jokatuko bait litzateke. Bost Nazioetako errebantxa polita, eta Twickenhamen jokatuz gero bestela izan bazitekeen ere, etxean 'oilarrak' behar lukete faborito. Hori gehiegi aurreratzea izan daiteke ordea, eta bere garaian ikusiko da zer gertatzen den Frantzia-Inglatera norgehiagoka bizian.

Galesek derrigorrez irabazi behar du sailkapena lortzeko

DONOSTIA

Hiru partidua jokatuko dira gaur Munduko Rugby Txapelketaren barruan. Eskoziak eta Irlandaren arteko neurketa izango da dudarik gabe ihardunaldi honetako norgehiagoka onena. Bi talde hauek lortu dute jadanik hurrengo kanporaketarako sailkapena eta gaur beren multzoko lehen postua izango dute jokoan.

Eskoziarrek izugarriko jipoiak eman dizkie Japonia (47-9) eta Zimbabweri (51-12), joko bikaina erakutsiz. Irlandak ere oso ondo jokatu du eta erraz irabazi ditu Japonia (32-16) eta Zimbabweren (55-11) aurkako partidua.

Galesek garaipena behar du Aus-

13.20 C+(f)	TB GAUR
Eskoziak-Irlanda (Zuzenean)	
15.05 C+(f)	
Gales-Australia (Zuz.)	
23.30 TF1	
Fidji-Erromania (Dif)+ Laburpenak	

traliaren aurkako partidua, final laurdenetarako sailkatu nahi badu. Australiak hutsune garrantzitsua izango dute erdilar postuan, Nick Farr-Jonesek ez bait du jokatuko. Wallabiesen kapitaina da dudarik

gabe taldeko jokalaririk garrantzitsuenetarikoa.

Australiaren aurka irabazten badu ere, Samoa eta Argentinaren arteko partiduen zain geratu beharko dira galesak. Samoak 16-13 irabazi zion Galesi lehen partiduan eta beraz, puntuak lortuz gero ozeaniarrak sailkatuko lirateke. Merezimendiari kasu egiten badiogu, Samoak lortu beharko luke aurrera jarraitzeko txartela, baina Galesek duen historiagatik ez litzateke desegokia izango hauek sailkatzea. Fidji eta Errumaniak emoziorik gabeko partidua jokatuko dute, jadanik kanpoan geratu bait dira bi taldeak. Brive-ra hurbilduko den ikuslegoaren errespetuz, amaiera ona eman behar lukete.

ATLETISMOA



Maria Luisa Irizarrek du marka onena emakumezkoetan.

NDER GILLENIA

Bihar 800 atletak hartuko dute parte Donostiako XIV Maratoian

P.A. / DONOSTIA

Bihar korrituko da Donostiako Maratoiaren XIV edizioa, 800 atletaren partaidetzarekin. Maratoi honetan Espainia, Euskadi eta Gipuzkoako txapelketak jarriko dira jokoan. Antolatzaileek iaizko partaidetza (775) gaintzea espero zuten eta azken momentura arte zalantzan izan bada ere, azkenean lortu dute.

Vicente Anton eta Jose Antonio Crespo dira Donostiako proban korrituko duten atletarik aipagarrienak. Bi gizon hauek 2.14eko denbora hobetzea izango dute helburu eta azkenaldi honetan erakutsitako sasoiaren arabera, hori egiteko gai izan daitezke. Jose Antonio Crespok bi maratoi korritu ditu orain arte eta 2.14.54eko denbora egin zuen Londreseko Munduko Kopan. Donostian Barcelona '92 Olinpiadetan parte hartzeko gutxieneko marka lortzeko asmoz irtengo da.

Vicente Antoni dagokionez, 2.13.38ko marka pertsonala egin du aurretan. Anton bi alditan izan da Es-

painiako txapelkun eta iaizko titulua berritzeko asmoz irtengo da bihar.

Euskal partehartzaileei dagokionez, Juan Mari Garin maratoi honetako irteeran izango da, azken ordura arte zalantzan egon ondoren. Garinek ez du emaitza onik lortu orain arte korritutako maratoietan, baina bihar 2.20ko marka hobetzeko asmoz aterako da. Honekin batera Jausoro, Zalama, Arrieta eta Blacok korrituko dute, besteak beste. Gipuzkoako Txapelketako urrezko domina lortzea izango da korrikalari guzti hauen helburu nagusia.

IRIZAR GARAIENAREN BILA Maria Luisa Irizar garaipenaren bila aterako da emakumezkoetan. Andoaindarra oso sasoi onean agertu da azkenaldi honetan eta proba irabazteko faboritoen artean dago. Irizarrek Espainiako markara hurbildu nahi du eta ahal izanez gero, urrezko domina lortu. Aurora Perez eta Carmen Mingorance izango dira gipuzkoarren arerio aipagarrienak.

Azken Irabazleak

Urtea	Gizonezkoak	Marka	Emakumezkoak	Marka
1982	H. Hernandez	2.20.38	Catherine Bayle	3.08.50
1983	Gaspar Esnaola	2.18.00	Catherine Bayle	2.56.29
1984	Ignacio Calvo	2.21.00	Juquina Casas	2.44.41
1985	H. Hernandez	2.17.23	Begoña Minayo	2.54.43
1986	E. Hernandez Galan	2.18.36	M. Luisa Irizar	2.38.28
1987	Juan F. Romera	2.11.52	M. Luisa Irizar	2.36.11
1988	Emiliano Garcia	2.13.48	Carmen Alda	2.49.31
1989	Jose E. Montiel	2.10.50	Rosa Talavera	2.39.21
1990	Rodrigo Gavela	2.13.37	Elisenda Pucurull	2.40.38



LEZAMAKO KIROL INSTALAZIOAK

Bihar, igandea, 11.30ean
Ohorezko Maila - 19pekoak

Athletic Club - Sevilla F. C.

LANCIA BILASA rekin dabil *Athletic*
Autonomia, 53 Tel. 427 58 20 BILBO Alameda Rekalde, 48 Tfn. 410 12 55